

MOZIO ARRUNTA

Herrerako Renfeko tren geltokiko igogailua dela eta

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **MOZIO ARRUNT** hau aurkezten du, Herrerako Renfe tren geltokiko igogailuari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabeteak dira Renfeko geltokiko igogailu berria ez dabilela. Geltokia bukatutzat eman zenean, igogailua martxan jarri zen, baina martxan jarri ondoren, joan den 2024ko abendutik igogailua geldirik dago, horrek sortzen dituen kalte guztiekin.

Orain hilabete batzuk, honi buruz galdetuta, Udal Gobernuak adierazi zuen ADIFekin hitzarmena sinatu behar zutela, Herrera auzoko geralekuko igogailua abian jar zedin; izan ere, igogailua berritzeko obrak aspaldi amaitu baitziren. Baina oraindik ere igogailua geldirik dago.

Inguruko bizilagunak dagoeneko haserre eta etsituta daude, batez ere ezinegon handiena mugikortasun arazoak dituzten bizilagunena da, Donostiako noranzkoan nasara iristeko eskailerak erabiltzea beste aukerarik ez baitute gaur egun.

Hortaz, orain hilabeteak instalatua dagoen igogailu bat martxan jartzeko soilik hitzarmen bat behar bada, ez dugu ulertzen zergatik ez den oraindik egin.

Hainbat eragile eta bizilagun dira honi buruzko galderak eta eskaerak egin dituztenak, baina oraindik ez dute erantzun argirik jaso.

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio RENFERi egoera hau konpondu dezala, Herrerako geltokiko igogailua martxan jartzeko eman beharreko urratsak eman eta epe laburrenean erabilgarri egon dadin.

Donostian, 2025eko abenduaren 1ean

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldeko zinegotzia